

# Kultur Aniztasuna 2025 Memoria



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Kultur Aniztasuna  
Diversidad Cultural

## 1. Sentsibilizazioa eta kontzientziakoa

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna - Apirilaren 8a . . . . .	5
Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna Maiatzaren 21a . . . . .	6
Haurren Egun Unibertsala - azaroaren 20a . . . . .	7
Loturak Zabalduek Elkargune - Moviltik . . . . .	8
Webinar Ijiton . . . . .	9

## 2. Prestakuntza

Ikastetxeetako irakasleentzako prestakuntza . . . . .	11
Txinatar hizkuntza eta kultura ikastaroa . . . . .	12
Arabierazko hizkuntza eta kultura . . . . .	13

## 3. Argitalpenak

Martuteneko baliabideen gida . . . . .	15
--	----

## 4. Bizikidetzak eta herritarren parte-hartzea

Familiak Bidelagun Kulturarteko bizikidetzak programa eskola eremuan . .	17
Emakumeen Kulturarteko Gunea . . . . .	18
Kultura Aniztasunaren Kontseilu Sektoriala . . . . .	19

## 5. Sareetan parte hartzea


Elkarbizi sarea . . . . .	21
Immigrazioko teknikarien sarea . . . . .	21
“ZAS” zurrumurruek aurkako sarea . . . . .	22
RECI Kultura arteko Hirien Espainiako Sarea . . . . .	23
ICC. Europako Kontseiluaren Kulturarteko Hirien Programa . . . . .	24

## 6. Elkarlanean dirulaguntzak

Dirulaguntza konkurrenteak . . . . .	26
Aparteko dirulaguntza - SOS Arrazakeria . . . . .	26
Aparteko dirulaguntza - Ukraina Euskadi . . . . .	27
Diru-laguntza izenduna - Camelamos Adiqueran . . . . .	28

## 7. Beste batzuk

Parisko Mongoliako enbaxada . . . . .	30
Visita Harreragunea . . . . .	30



Donostiako Udalak kultur arteko hiri-eredu baten aldeko apustua egiten du. Eredu horrek, berdintasunean pertsona bakoitzari datxezkion giza eskubideen errespetutik abiatuta, aniztasunarekiko errespetua sustatzen du, haren balio positiboa onartzen du eta elkarreragin positiboa sustatzen du, gizarte garapena eta kohesioa erraztuko dituen bizikidetza bermatzeko.

Aniztasuna errealitatea da, eta funtsezkoa da hiriko eta auzoetako bizitza ulertzeko. Donostiako Udala jabetzen da hirian izaten diren aldaketa soziodemografikoez. Badaki, gainera, aldaketok kudeatzeko orduan, bizikidetza eta gizarte-kohesioa indartuta atera ateratzeko ahalegina egin behar dela.

Hori dela-eta, Kultura Aniztasunaren Negoziatuaren helburua da hirian kultura-aniztasunari erantzuteko erantzun publikoak antolatzea, eta herritar guztien aukera-berdintasuna eta eskubide sozial eta politikoak bermatu ahal izatea, haien jatorria, nazionalitatea edo talde etnikoa edozein izanik ere.


<https://labur.eus/fakm vb7q>



---

1

# Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



# 1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



## Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna      Apirilaren 8a

1971eko apirilaren 8an izan zen, Londresen, Erromanien/Ijitoen Munduko Lehen Biltzarra. Biltzar garrantzitsu horretatik bandera (berdea eta urdina, eta erdian orga-gurpil gorri bat) eta Gelem Gelem ereserkia sortu ziren, nazismoaren biktima izan ziren ijitoen omenez egina.

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna zela-eta, Eneko Goia alkateak, udal korporazioarekin batera, harrera egin zion ijito-herriari Udalbatza Aretoan. Ekitaldian Agifugi, Camelamos Adiquerar eta Fundación Secretariado Gitano elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten. Ijitoen bandera

udaletxeko balkoian zintzilik egon zen.

Adierazpen bat irakurri zen eta bideo bat proiektatu zen, ijito-herriaren “Gelem Gelem” ereserkiarekin batera. Ondoren, Ibaiaren Zeremonia egin zuten Nautikoan, arrosa-petaloak jaurti eta kandelak piztu zituzten arbasoen oroimenez.

Dbusek bat egin zuen Ijito herriaren egunarekin, hiriko autobus guztietan ijitoen bandera erakutsiz.

# 1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

Anima zaitez parte hartzera eta parte hartu elkarrizketan!  
¡Ánimate a participar y forma parte del diálogo!

**KULTUREN ARTEKO ASTEA**  
Elkarrizketa eta garapena  
**2025**

**19-24 maiatza**  
mayo

**SEMANA ENTRE CULTURAS**  
Diálogo y desarrollo

**Elkarte parte-hartzaileak / Asociaciones participantes**  
Agifugi • Bidez Bide • Decebal • Elkarrekin Koop  
Emigrad@s Sin Fronteras • Haurralde Fundazioa  
Jatorkin Al-Nahda • Kaebnai • Mestiza  
Unión Cinco Estrellas • SOS Racismo Gipuzkoa

**DONOSTIA SAN SEBASTIÁN**  
Kultur Aniztasuna  
Diversidad Cultural

**donostiakultura**

**PROGRAMA**

## Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna      Maiatzaren 21a

Maiatzaren 21ean, Kultur Aniztasunaren bulegoak Kulturen Arteko Astearen lehen edizioa antolatu zuen. Bertan, hainbat erakundek parte hartu zuten ekitaldi ezberdinak antolatuz. Kulturen artean gozatzeko, partekatze eta hauen aberastasuna ezagutzeko jardueraz beteriko astea izan zen. Aste honetan era askotako ekimenak bildu zituen, besteak beste, erakusketak, ikuskizunak, hitzaldiak, musika, grafitti-a, escape room...

Hauek izan ziren Kultur Aniztasunaren bulegoarekin batera parte hartu zuten elkarteak: Sos Arrazakeria, Agifugi, Elkarrekin

Kooperativa, Jatorkin Al-Nahda, Kaebnai, Emigradas Sin Fronteras, Haurralde Fundazioa, Bidez Bide, Unión Cinco Estrellas, Decebal eta Mestiza. Programa Donostia Kulturaren elkarlanarekin antolatu zen.

Egitaraua:

<https://labur.eus/1dcb6c3w>

Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=siM27CnO3X4>

# 1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



## Haurren Egun Unibertsala

azaroaren 20a

Mestiza Elkarte Artistiko-Soziokulturalak, Kultura Aniztasuneko bulegoaren bultzadarekin eta Donostia Kulturaren lankidetzarekin, festa bat antolatu zuen 6 eta 9 urte bitarteko haurrentzat. Hala ere publikoa oso anitza izan zen, irakasleak, gurasoak, liburutegietako langileak, eta baita Alberdania argitaletxeko Agur, Puxika, Agur! Liburuaren editorea ere.

50 haur inguru parte hartu zuten Okendo Kultur Etxean egindako haur-festan. Bertan, Agata Loth-Ignaciuk irakurketa berezi bat egin zuen polonieraz, eta ondoren, umeei opari bat prestatu zuten Agatarentzat, esaldi bereziak zituzten puxikak oparitu zizkioten.

Ondoren haurren festa izan zen, non irakurketaz gozatu ahal izan zuten, eskulanaz, txontxongiloez, tombolaz.... Haur bakoitzak poltsa bana jaso zuen bi libururekin: Agur, Puxika, Agur eta beste bat gaztelaniaz.

Haurren Egun Unibertsalaren inguruan antolatutako jardueren programa orokorrean txertatzen da jarduera hau, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasun, Giza Eskubide eta Gazteria atalek antolatuta, Donostia Kulturarekin batera.

<https://labur.eus/LxaWy>

# 1 Sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa



## Loturak Zabaldu Elkargune – Moviltik

Aniztasun Atalak 2024an hasitako “Loturak zabaldu. Elkargune” proiektuarekin jarraitu zuen. Bertan, errealitate birtualeko lan baten bidez, gazteak gure lurraldeen aniztasunaz, migrazio-prozesuez eta migratzaileen harreraz sentsibilizatu ziren.

Ikasleak, errealitate birtualaren bidez, beren migrazio-prozesua azaltzen duten hiru emakume gazte migratzailearen kontakizunetan murgildu ahal izan ziren. Gero, taldeko hausnarketa eta elkarrizketa egon zen.

2025ean 12 tailer egin ziren, DBHko 3. mailako 12 lerroekin: Lauaizeta BHI, Santo Tomas Lizeoa, Manuel Larramendi eta Axular Lizeoa.

<https://moviltik.org/es/loturak/zabaldu/>

# 1 Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



## Webinar Ijiton

2025eko Ijiton Webinar ekitaldia abenduaren 11tik 13ra bitartean ospatu zen Donostian, erromani herriaren oroimenaren, artearen eta etorkizunaren arteko elkarrizketa bizia pizteko asmoz.

Abenduaren 11n Ijiton Webinar ekimena egin zen Intxaurrendoko Kultur Etxean, formatu presentzian eta hibridoan. Jardunaldiak proiektzioak, elkarrizketak eta testigantzak konbinatu zituen, erromani herriaren memorian eta erresistentzian murgiltzeko.

Abenduaren 12an, emankizun berezi bat egin zen Teledonostin: "Ijiton: Lurra eta Ahotsa". Espazio horretan, kulturaren, akademiaren eta politikaren arloko erreferentziazko erromani ahotsek parte hartu zuten, eta nortasuna, politika publikoak eta arte-sorkuntza gurutzatu zituen eztabaida sortu zen.

Abenduaren 13an topaketa intimo eta komunitarioa egin zen. "Hiru Urak" izenburupean, AGIFUGIren egoitzan belaunaldien arteko ekitaldi bat egin zen, non haurrek, gazteek eta emakume ijitoek kontakizunak, memoria eta etorkizuna partekatu zituzten. Eguna amaitzeko, manifestuaren irakurketa korala egin zen euskaraz, erromaniz eta gaztelaniaz.

Jardunaldiaren antolatzaileak: Agifugi Elkarte, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasun Bulegoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Negoziatua.


Bideoa:


<https://www.youtube.com/watch?v=YQ-SdFrN8C0>

[www.ijiton.com](http://www.ijiton.com)

— 2

**Prestakuntza**






### **Ikastetxeetako irakasleentzako prestakuntza**

---

Migrazio-fluxuen ondorioz, euskal komunitatea gero eta askotarikoagoa eta plurala da. Etengabe aldatzen ari den gizarte kulturantzun horrek erronka berriak planteatzen dizkio hezkuntza-sistemari, gero eta anitzagoak eta konplexuagoak diren ikasleen beharrei erantzun behar baitie.

Horrela, ezinbestekoa da eskola-komunitateari kulturarteko beharrezko prestakuntza ematea, inplikaturako eragileek sortzen diren egoerak maneiatu ahal izan ditzaten eta ikasleen aniztasunak ematen duen aberastasuna aprobetxatzen jakin dezaten.

Honela, 2025ean, Kultura Aniztasunaren Bulegoak Donostiako Udaleko Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin lankidetzan, kultura-aniztasunari buruzko ikastaroak antolatu zituen 7 ikastetxetako irakasleentzat eta jantokietako langileentzat: Catalina Erauso, San José, Herrera, Presentación de María, Mary Ward, Mendiola eta Bideberri. Guztira, 28 saio antolatu ziren.



### Txinatar hizkuntza eta kultura ikastaroa

Ikastaro honen helburua donostiar hiritarrak gaztelaniaduna ez den hiriko komunitate handienetako batera hurbiltzea izan da. Donostian, Txinan jaiotako 500 pertsona inguru bizi dira. Komunitate hau ez da oso ezaguna, eta estereotipo negatibo ugari ditu.

Ikastaro honen bidez, aurreiritziei aurre egiten eta ezagutza eta enpatia


bultzatzen saiatu da Kultur Aniztasun bulegoa. Ikastaroa otsailaren 13tik ekainaren 5era bitartean egin zen, 20 pertsonak hartu zuten parte eta guztira 2 orduko 13 saio egin ziren.

Euskal Herriko Asiar Institutuak eman zuen eta Ernest Lluch kultur etxean egin zen, Donostia Kulturaren laguntzarekin.

### Arabierazko hizkuntza eta kultura


Globalizazio gero eta handiagoko testuinguru batean, kultura desberdinak ezagutzea funtsezkoa da ezagutza eta bizikidetzaren harmoniatsua sustatzeko. Horrela, ikastaro honen helburu nagusia Donostiako herritarrak mundu arabiarra hurbildu ahal izatea izan zen, aurreiritziak eraitsiz eta elkarrekiko errespetua eta ulermena sustatuz.

Horrela programatu zen 2025eko urriaren 21ean hasi eta 2026ko otsailaren 10ean amaituko den ikastaro hau, non 35 pertsona parte hartzen ari diren. Donostia Kulturarekin elkarlanean antolatu da eta Arabiar Etxea Institutuak eman du.



— 3

Argitalpenak



# 3 Argitalpenak

## Ongi etorri Martutenera!

Gida honekin Martutene auzora ongietorria eman nahi dizugu. Donostiako hegoaldean dago auzoa, Urumea ibaiaren ertzean, Txomin Enearen eta Astigarragako udalerriaren artean. Martutenek egun 2.700 biztanle inguru ditu. Martuteneko herritarren %48 inguruk daki euskaraz.


Gida honetan auzoan dauden zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa aurkituko duzu, baita bertako bizitza kultural aberatsari buruzko informazioa ere.

Halaber, auzoaren nortasuna ezagutzera gonbidatzen zaitugu, bertako bizilagunekin batera, auzoko gune, elkarte, jarduera edo festa desberdinak ezagutuz.

Gida hau eskura dezakezu euskaraz (Euskal Herriko hizkuntza ofiziala gaztelaniarekin batera), gaztelaniaz ingelesez, frantsesez eta arabieraz.

ipuzkoa . . . . .	2	<b>8 Etxebizitza.</b> . . . . .	7
. . . . .	3	<b>9 Euskara</b> . . . . .	7
. . . . .	3	<b>10 Garraioa.</b> . . . . .	8
. . . . .	4	<b>11 Kultura, aisia eta kirola</b> . . . . .	9
. . . . .	4	<b>12 Emakumeen Etxea.</b> . . . . .	10
. . . . .	5	<b>13 Elkarteak</b> . . . . .	11
akuntza . . . . .	6	<b>14 Bestelako elkarteak eta intereseko errekurtsoak</b> . . . . .	12

### Geografikoa



ipuzkoa - 943 440 633

14 Donostia. (943007072) io duzu larrialdiko arreta.

lioia" laguntza eskaintzen dute osasun-ta emateko. Larrialdi-zenbakia 112 da.

k dira. Euskadin, pertsona guztiok dugu :a 16 urte bitartean, eta derrigorrezko

ministrazio-egoera edozein dela ere, ra eta eskubidea dute. Hezkuntzarako eskatzeko aukera jasotzen du.

Ungi etorri Martutenera! 5

## Martuteneko baliabideen gida


2023an, Martutene auzoan sartu berri diren bizilagunei harrera integrala egiteko prozesu komunitarioa diseinatzeko proiektua abiarazi zen.

Prozesu hori auzoko gizarte-eragileekin, udal-ordezkaritza teknikoekin eta auzotar etorri berriekin elkarlanean egin zen. Besteak beste, diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo bat egin zen, eta harrera komunitarioarako ibilbide-orri bat diseinatu zen.

2025ean, Martutene auzoko baliabideen gida bat egin zen agente horiekin batera.

— 4

**Bizikidetza  
eta herritarren  
parte-hartzea**



# 4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

## Familiak Bidelagun Kulturarteko bizikidetza programa eskola eremuan

Lehen Ongi Etorri Eskolara deitzen zen proiektu hau 2015-2016 ikasturtean sortu zen, eta gaur egun Donostiako bederatzikostetxek parte hartzen dute: Aitor, Zuhaitzi, Maria Reina, Intxaurrondo Ikastola, Amara Berri (hiru ikastetxe), Jakintza, Orixe, Antzazuko Ama eta Katalina Erauso.

Proiektu honek tresnak ematen dizkie ikastetxeei kultur aniztasunari buruzko heziketa emateko.

Proiektu horretako "Familia Laguna" programa aipagarria da. Programa horretan, gure hirira iritsi berri den atzerriko familia bat bertako beste familia batekin harremanetan jartzen da; azken honek zubilana egiten du komunitate- eta eskola-eremuan gizarteratzeko prozesua errazteko. Aldi berean, bi familiek elkar ezagutzen dute, elkarri eragiten diote eta aberastu egiten dira kulturarteko harreman batean. 2024-2025 ikasturtean 116 familiak parte hartu



zuten programan, 55 bikote eta hirukote bat osatuz eta 2025-2026 ikasturtean 58 bikote eta 116 familia izango dira. Beste familia batzuei elkarrizketak egin zaizkie eta eskolaren funtzionamenduari eta auzoko baliabideei buruzko informazioa jaso dute.

Gainera, urte osoan zehar, programak zerbitzu eta jarduera asko gauzatu ziren, hala nola: irakasleentzako eta familientzako prestakuntza, ikasgeletan lan egiteko tresnak, Familia Laguna

programarako baliabide-gidak, gurasoen elkarteekiko lankidetzak, prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak, kulturarteko talde motorrak bultzatzea, kulturarteko diagnostikoak eta ikerketak, harrera protokoloak eta abar.

<https://www.ongietorrieskolara.org/eu/>

# 4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea



## Emakumeen Kulturarteko Gunea

Kultura Aniztasunaren Bulegoak bultzatutako ekimena da, Udaleko Berdintasun Atalaren lankidetzarekin batera aurrera eramaten duena. Emakume migratuak ahalduntzen laguntzea du helburu.

Esparruak erantzuna eman nahi die Donostian bizi diren hainbat jatorritako emakume migratzaileen premiei. Horretarako, taldea astero biltzen da Emakumeen Etxean. Esparru seguru horretan, errealitateak eta bizipenak partekatu eta konponbide kolektiboak bilatzen dituzte, zailtasun eta lorpen indibidual eta taldekoetatik ikasita. Horrela, talde honek egiten dituen jarduera

guztien helburua da parte-hartze soziala, ahalduntzea eta kontzientzia feminista sustatzea.

2025ean, gutxi gorabehera, askotariko jatorrietako 49 emakumek parte hartu zuten. Migrazio-bizipenak, lan-eskubideak, hiriko baliabideak, autozainketak, diskriminazioa eta antzeko gaiak lantzeaz gain, hainbat lantegi antolatu ziren: fototerapia Ohiana Marcorekin, osteopatia Ane Ormazabalekin, kirol saio eta ikastaroak Hegalak zentroan, zinema-saioak, eta abar.

<https://labur.eus/XrkSf>

# 4 Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea

## Kultura Aniztasunaren Kontseilu Sektoriala

Donostiako Udalak 2014tik bildu den Kultur Aniztasuneko Eragileen Sarea ofizial egin eta legitimatu nahi izan du; sare honek bere sektoreko erakundeen partaidetza zabala izan du.

Horrela, sektoreko eragileekin partekatutako prozesu baten ondoren, 2025aren amaieran kontseiluaren erregelamendua onartu zen, eratzeko bilkura 2026ko lehen hiruhilekoan egingo

duena. Donostiako udalaren eta sektoreko elkarte eta mugimenduen arteko elkarrizketarako gune bat izango da. Elkarte hauek atzerritar jatorriko biztanleen, errefuxiatuen eta kultura anitzeko herritarren harrera eta gizarteratzeko lana egiten dute.


Kontseilua, herritarrek parte hartzeko organoa izango da, batez ere etorkinen edo kultura anitzetako biztanleen alde lan egiten duten

erakundeen parte hartzeko. Gune horretan, erakunde horiek beren kezak, ekimenak eta proposamenak planteatu ditzakete, aliantzak ezartzeko eta Donostiako Udalarekin zuzeneko elkarrizketa izateko. Kontseiluak 4 ohiko bilkura egingo ditu urtean.

<https://labur.eus/dz7uma1q>

5

Sareetan  
parte hartzea



# 5 Sareetan parte hartzea

## Elkarbizi sarea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritzak kudeatzen du sare hori, eta zuzendaritza horrek berak eta kultura-aniztasuna lantzen duten Gipuzkoako hainbat udalek osatzen dute.

Urtean zehar hainbat bilera egiten ditu, hainbat jarduera elkarrekin antolatzen ditu eta herrietako lana eta esperientziak partekatzen ditu. Kultura

Aniztasuneko Departamentuko teknikariak sareak antolatutako prestakuntza batzuetara joan ziren.

2025ean, 4 ohiko bilera egin dira eta beste formakuntza eta hausnarketa jardunaldi bat ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen inguruan.

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak/udalen-aniztasun-zerbitzuak>

## Immigrazioko teknikarien sarea


Eusko Jaurlaritzak euskal udalerri batzuetako immigrazio-teknikarien kontratazioa finantzatzen du, horien artean Donostiako Udaleko teknikari batena.

Gainera, urtean zehar hainbat informazio-saio eskaintzen ditu immigrazioaren kudeaketarekin eta kultura-aniztasunarekin lotutako funtsezko gaiei buruz. Era berean, Ikuspegiren eta Biltzenen bitartez prestakuntza irekiak, aholkularitza eta arlo horretako beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu.

Aurten, 2025ean, Kultura Aniztasunaren Bulegoak Biltzenek San Telmo Museoan antolatutako Atzerriartasun Araudiaren Erreformari (1155/2024 ED) buruzko prestakuntza-saioa antolatzen lagundu zuen.

2025ean, halaber, Immigrazio eta Asilo Foroaren osoko bilkuran parte hartu zuen, eta online prestakuntzak jarraitu ziren.

## 5 Sareetan parte hartzea



Zurrumurruen  
Aurkako Sarea

Red Vasca  
antiRumores

### “ZAS” zurrumurruen aurkako sarea

Gizarte-eta erakunde-eragileen sare bat da, eta gizartea eraldatzeko estrategia bat gauzatzen du, giza eskubideen, interkulturalitatearen eta arrazakeriaren aurkako ikuspegietatik.

Gaur egun, idazkaritza tekniko batek, lan-batzordeek eta aldizkako osoko bilkurek osatzen dute Sareko kideen bozketan oinarritutako erabaki-eremua.

Kultura Aniztasunaren Bulegoak ZAS sarea mantentzen laguntzen jarraitzen du.

2025ean, ZAS! sarearen esparruan, Gipuzkoako beste udalerri batzuekin partekatutako prozesuari ekin zaio, Elkarbizi Sarearen bidez, Gipuzkoarako kanpaina eta estrategia zehatzak zehazteko.

<https://zas.eus/>

# 5 Sareetan parte hartzea



## RECI Kultura arteko Hirien Espainiako Sarea

RECI (Kulturarteko Hirien Espainiako Sarea) Estatuko sare bat da, Europako Kontseiluaren Intercultural Cities programaren ekimenez sortua. Gaur egun, kultura arteko programak eta ekimenak dituzten 22 hirik osatzen dute. Kultura- eta jatorri-aniztasuna hiriaren garapenerako eta kohesiorako elementu positiboak direla kontuan hartuta, sare honek elkarrekin lan egiten du esperientziak partekatzeko eta koordinatzeko eta kultura-aniztasuna kudeatzeko modurik onenari buruz eztabaidatzeko.

2025ean, azaroan Santanderren egindako RECI topaketan parte hartu zen. Bertan, hiru egunez, hainbat hiritako 35 ordezkari baino gehiagok parte hartu zuten Santanderreko Udaleko Integrazio eta Gizarte Lankidetzarako Bulegoak antolatutako tailer, hitzaldi eta bisitetan.

<https://reddeciudadesinteligentes.es/>

# 5 Sareetan parte hartzea



## ICC. Europako Kontseiluaren Kulturarteko Hirien Programa

Donostia Europako Kontseiluaren Kulturarteko Hirien Sarearen Programako kide da 2011z geroztik. Gaur egun, Europako eta beste kontinente batzuetako 140 hirik baino gehiagok parte hartzen dute, eta hiriei aniztasuna kudeatzeko eta migratzaileak eta gutxiengoak integratzeko kulturarteko estrategiak garatzen laguntzea du helburu.

2025ean, Donostiak Wroclawra (Polonia) egindako azterketa-bisita batean parte hartu zuen, hiri horretan kulturen arteko bizikidetzaren sustatzeko proiektuak ezagutzeko, Ukrainako errefuxiatuen harreraren oinarritutak daudenak batez ere. Bestalde, urrian ICC sarea koordinatzeko urteroko aurrez aurreko topaketa egin zen Bergenen (Norvegia). Bertan, sareko hirietako praktika onak partekatu ziren, batez


ere kulturen arteko narrazioetan eta gazteen integrazioan oinarrituak.

Bestalde, Donostia, Bergenekin (Norvegia), Neuchâtelekin (Suitza), Portorekin (Portugal), Wroclawrekin (Polonia), Mexiko Hiriarekin eta RECIrekin batera, Advisory Group-en parte da 2027ra arte, eta batzorde horren zeregina da ICCko idazkaritzari hainbat gairen inguruan zuzenean aholkatzea. Aurten, 4 bilera egin dira online, eta aurrez aurreko lanaldi bat Bergenen (Norvegia).

<https://www.coe.int/en/web/interculturalcities/-/the-icc-programme-renews-its-advisory-group>

6

# Elkarteentzako dirulaguntzak



# 6 Elkarreentzako dirulaguntzak

## Dirulaguntza konkurrenteak

Diru-laguntzen helburua da hainbat jatorri eta kulturatako pertsonen artean elkar ezagutzeko eta aitortzeko lanean inplikaturako gizarte-eragileek zuzendutako ekimenak eta proiektuak babestea.

Kultura Aniztasunaren Bulegoak **54.150 euro** banatu zituen, guztira, irabazi-asmorik gabeko hainbat erakunderen artean.

Hala, 2025ean, 31 proiektu babestu ziren “Harrera-, sentsibilizazio- eta partaidetza-proiektuak” dirulaguntzen lerroaren bidez, eta 3 proiektu “Ikerketa-proiektuak” ildoaren bidez.

Proiektu bakoitzean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuazioaren arabera ezarri zen.

<https://labur.eus/u14r5umj>

## Aparteko dirulaguntza

SOS Arrazakeria Gipuzkoa elkarteari dirulaguntza eman zitzaion proiektu hauek egiteko:

- Eguneroko prentsa-aldizkaria - 23 egunkaritan immigrazioaren, diskriminazioaren eta arrazakeriaren fenomenoekin lotuta argitaratzen diren informazio-edukiak egunero biltzen eta sailkatzen dira. 2025ean, 1.621 harpideduni baino gehiagori bidali zitzairen aldizkari hori, eta, aldi berean, datu-base digital bat sortu zen, gizarte-eragile eta erakundeentzat eskuragarri (8.540 €).

<https://sosracismogipuzkoa.org/observatorio-de-medios/>

## SOS Arrazakeria

- Urretxindorra - Mentoretza nerabe gazteekin. Tresna sozial bat da, hain zuzen ere mentoretza jasoko duten ikasleen (zaungarritasun-egoeran dauden 10-14 urteko haur etorkinak) eta banakako laguntza emateko mentore-ikasle boluntarioen (unibertsitateko edo goi-mailako ikasleak) arteko harremana sustatzen duena (5000 €).

<https://sosracismogipuzkoa.org/urretxindorra/>

# 6 Elkarteentzako dirulaguntzak

## Aparteko dirulaguntza

## Ukraina Euskadi

Udalak hainbat neurri abiarazi zituen 2022an, Ukrainako gerraren ondorioz mugitu behar izan ziren pertsonen harrera antolatzeko. Ukrainarren komunitatearen integrazioa eta antolaketa errazteko asmoz, Udalak udal lokal bat laga zion Ukraina Euskadi elkarteari.

2025ean, Kultura Aniztasunaren Bulegoak 2.500 euroko dirulaguntza eman zuen lokalaren funtzionamendu- eta mantentze-gastuak finantzatzeko.

<https://ucraniaeuskadi.com/>

# 6 Elkartentzako dirulaguntzak



## Diru-laguntza izenduna


## Camelamos Adiquerar

Camelamos Adiquerar elkarteak flamenkoa sustatzen du kultura transmititzeko tresna gisa. Elkarte horrek urtero antolatzen du Cante Flamenco Ciudad de San Sebastián lehiaketa, eta euskal kulturarekin batera ijito-herriaren nortasun propioa babestea du helburu.

2025ean 20.000 €-ko dirulaguntza eman zen abenduaren 14an Donostiako Antzoki Zaharrear egin zen Flamenko Kantuaren Lehiaketaren 24. edizioa egiteko. Bertan, lehiakideez gain, Pedro Heredia Reyes, Pedro el Granaíno artista gonbidatuak parte hartu zuen.

7

Beste batzuk



# 7 Beste batzuk

## Parisko Mongoliako enbaxada

Donostiako Udaleko Kultura Aniztasuneko sailak eta Alkatetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Mongoliako Herritarren Elkartearekin (ACIMON PV) lankidetzan jardun dute, Donostian eta Irunen bizi diren Mongoliako herritarrei zuzendutako arreta kontsularreko 2 jardunaldi antolatzeko. Horrela, talde diplomatikoak mongoliar jatorrizko biztanleentzat beharrezkoak diren izapide burokratikoak egin ahal izan ditu.

Jardunaldiak maiatzaren 24an eta 25ean eta azaroaren 29an eta 30ean egin dira Donostiako Udalean.

## Visita Harreragunea

Bilboko Harreragunea, 2024ko azaroan inauguratua, zerbitzu aitzindaria da euskal lurraldera iritsi berri diren migratzaileei harrera egiteko arloan. Harrerarako Euskal Zerbitzuaren eredu pilotua da, migratzaileei informazioa eta orientazioa emateko zerbitzu publiko espezializatua, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak sortua eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatua.

Zerbitzu berri horrek lankidetzan estuan dihardu harrera eta kulturen arteko bizikidetzan programak garatzen urteak daramatzaten gizarte-erakundeen sare batekin, eta bulego berritik lagundu nahi die Bilbon bizitzen hasten diren migratzaileei hirian egokitzeko prozesuan, eta baita eskubideak eta aukerak berdintasun-baldintzetan eskuratzen ere.

Hala, 2025eko otsailean, zentroa eta haren funtzionamendua ezagutzeko asmoz, Kultura Aniztasuneko Bulegoko talde tekniko eta politikoaren bisita antolatu zen.

<https://www.bilbao.eus/inmigracion/gestion.asp?codges=5&i=es>



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Kultur Aniztasuna  
Diversidad Cultural